

UZTARRIA

GUKA

JAIONE ALBENIZ

DANTZA, AHALDUNTZEKO BIDEA


I N N O V A
AZPEITIA
HORTZ KLINIKA

ZURITU HORTZAK
ETA PRESTATU
IRRIBARREA
UDARAKO

Jose Artetxe kalea 5
☎ 943-02 59 55



Miele

MILAR LARRAMENDIN
AURKI DITZAKEZU
MIELE PRODUKTUAK

MILAR LARRAMENDI

Etxetresna elektrikoak


**Cooking
& Chef**
GURKALDE GUREA



www.milar.es

webgunean ere aukera zabala

Julia Urkixó, 16 • AZKOITIA
943-85 18 97



KIMUBAT

— GARDEN



BISITATU GURE GARDENA

Urrestilla bidea, z/g, Azpeitia
943 15 00 85
garden@kimubat.eus

www.kimubat.eus





UZTARRIA 260

2023- MAIATZA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Korapiloa Mailo Oiarzabal,
<i>Venezia ia ia.</i> | 24 | Guka, Parean eta pareko
Mikel Morris eta Hiromi Yoshida. |
| 6 | Zu zeu Arantxa Mozo, Parrokiaren
ondoko harpearen mantenuaz
ardurutzen da. | 33 | Lehiaketa |
| 8 | Nire leihotik Alaitz Ruiz, <i>Sua.</i> | 34 | Erretratua Beni Odriozola,
aterpezaina. |
| 10 | Iritziak Irati Aranguren, <i>Oheko
lagunak</i> ; Hiromi Yoshida, <i>Lehenengo
gauza.</i> | 38 | Plazan Bazan |
| 12 | Erreportajea Aisialdi berri
bateranzko proposamena. | 40 | Iritzia Miren Segurola,
<i>Dena aldatzen da.</i> |
| 17 | Guka gara! | 42 | Bestaldetik Iñigo Arregi,
Lagun Onak futbol klubaren
presidentea. |
| 18 | Iritzia Oier Etxeberria,
<i>Tempus fugit.</i> | 46 | Iritziak Amaia Alberdi, <i>Egunaren
argia eta itzala</i> ; Ignacio Arakistain,
<i>Zurea da hitza.</i> |
| 20 | Elkarriaketa Jaione Albeniz,
dantzaria eta aktorea. | | |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
azpeitia@ukt.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Nerea Uranga
Erredaktore taldea:
Maialen Etxaniz
Ihintza Elustondo
Julene Frantzesena

Nerea Uranga

Diseinu arduraduna
Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
**Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:**
Elena Margüello

Olatz Alkorta
Alaitz Ruiz
Irati Aranguren
Hiromi Yoshida
Oier Etxeberria
Miren Segurola
Amaia Alberdi
Ignacio Arakistain.

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale



Babesleak:



AURREMATRIKULA!

Maiatzaren 8tik 26ra

Ziklo guztiak euskaraz hutsean

ERANITZA: ziklo honetan modulu batzuk ingelesez egiteko aukera.



**Arotzeria eta
Altzarigintza**
Erdi Maila



**Zura
Prozesatzea
eta Eraldatzea**
Erdi Maila



**Mendekotasun
Egoeran Dauden
Pertsonentzako
Arreta**
Erdi Maila



**Instalazioa eta
Altzari-
Hornikuntza**
Erdi Maila



Gizarteratzea
Goi Maila **ERANITZA**



**Diseinua eta
Altzari
Hornikuntza**
Goi Maila [Eskaintza
parziala]



**Mekanizazio
Teknikaria**
Erdi Maila



**Plataforma Anitzeko
Aplikazioen
Garapena**
Goi Maila **ERANITZA**



**Fabrikazio
Mekanikoko
Produktzioaren
Programazioa**
Goi Maila **ERANITZA**



**Mekatronika
Industrial**
Goi Maila **ERANITZA**



**Administrazio
eta Finantzak**
Goi Maila **ERANITZA**

**Informazioaren
Teknologien
Inguruneetan
Zibersegurtasuna**
Especializazioa



**Eragiketa-Teknologien
Inguruneetan
Zibersegurtasuna**
Especializazioa

- **ETHAZI** metodologia Ikaskuntza kolaboratiboa. Eginaz ikasi. Zeharkako gaitasunak: Sormena, iniziatiba, lantzeraketa, komunikazioa, gaitasun digitalak,...
- **DUAL** programa berria: Enpresa egonaldiak 1 eta 2. mailan.
- **ERASMUS**: Praktikak atzerriko enpresetan egiteko aukera.
- Enpresetara bisitak.
- Ikas-enpresa eta Urratsbat: Ekintzailetasuna lantzeko jarduerak.



Aurrematricula izenaz aurrera edo online bidez egiteko aukera



www.izarraitz.eus
Guztiona, guztiontzat!

CIFP IZARRAITZ
LANBIDE HEZIKETA LHII
Altamira auzoa z/g
20720 Azkoitia (Gipuzkoa)
Tel. 943 85 21 74 • bulegoa@izarraitz.eus
668 716 482 • @izarraitz_LHII



Venezia, ia ia



MAILLO OIARZABAL

Urrestillako Kaletxiki eta Kaleaundi berrurbanizatzeko proiektua osatzen ari da Azpeitiko Udala. Bi kale horietako zorua ez ezik, besteak beste, ur hornidura sarearen azpiegiturak ere berritzeko asmoa duela aurreratu du erakundeak. Lanak hasteko hilabeteak pasatuko dira, baina kaleak hankaz gora izango ditugu epe labur-ertain-luzean –ikusiko–. Hobe beharrez izango delakoan...

Datozen lan horiek 1983ko beste haiek ekarri dizkidate gogora. Azpiegiturak berritzeko, ebakita, zulatuta eta erdibituta egon ziren kaleak hilabete luzez duela 40 urte. Herri ia osoa hankaz gora. Egiari zor, ezingo nuke zehaztu zenbat denbora iraun zuten lan haiek. Gu, garaiko ume mokoak, kalean irekitako zangetan lanean aritzen zirenekin txor-txorrean jarduten ginela gogoratzen dut; guztien izenak eta ezizenak ikasi genituen, eta ezizenik ez zutenak geuk 'bataiatu' ere bai. Ez zuten pazientzia txikia izan gurekin. Handik urteetara ere, langile haietako batek baino gehiagok agurtu egiten gintuzten kalean ikusitakoan. Behargin haiekin egin genuen harremanagatik dut irudipena lan haiek luze jo zutela.

Ez dakit ez lanak noiz hasi ziren, ez noiz bukatu ziren, baina 1983ko udan kaleak artean altxatuta zeudela oso-oso ondo akordatzen naiz. Izan ere, urte hartako abuztuaren 26aren goizaldean, gure etxea Urrestillako Kalebarrenetik Veneziaara lekualdatu balitz bezala esnatu ginen, besteak beste, obrak tarteko etxetik gertuko pareta bat zulatuta zegoelako; atzean ibaia eta aurrean ibaia, kalean behera ibaia eta kalean gora ere ibaia. Venezia, ia ia; Venezia, baina gaizki. Zulatutako kaleak estali zituen urak, eta uholdeek eragindako herioak premia eta arin mugitzea eskatu arren, pausoak tentuz eta itsu eman behar, zuloren batean ez murgiltzeko. Sinberguentzako zubia urak hartu gabeko muinotxo bihurtuta, han eman genituen argitu arteko orduak gure etxeko lau ahizpok eta beste hainbatek. Gau hartako oroitzapenen artean, oraindik zirrara eragiten dit Basilio Urbistondorenak. Herriko harakina, azpiko elastiko zuri tirantedunarekin eta txapela buruan, 30 urte lehenago Zestoan beste uholde batek eraman zuen autobus hartatik bizirik nola libratu zen kontatzen; iraganeko tragedia beldurgarriaren akordua, uneko ezinak txiki uzteko.

Horrenbestez, eta ezinbestean, nire gogoan beti lotuta egon dira Urrestillako kaleetan orain arte ezagutu ditudan obrarik handienak eta uholde handienak. Ez dakit etortzeko dauden lanak ordukoak bezain sakonak izango diren. Halako uholdeak errepikatzeak ez dirudi erraza; ibaia 1983an halako bi bada, behintzat, zabaleran. Nahiago nuke duela 40 urteko lanen lekuko kaleak orbantzen dituzten *tapakubo* batzuk behintzat desagertuko balira. Ea bada. ■■■

**GUZTIEN IZENAK ETA
EZIZENAK IKASI
GENITUEN, ETA
EZIZENIK EZ ZUTENAK
'BATAIATU' ERE BAI**

Arantxa Mozo: "Herriar askok ez dute altxor hau ezagutzen"

TESTUA ETA ARGAZKIA: MAIALEN ETXANIZ

Parrokia ondoko harpearen mantenuaz arduratzen da Arantxa Mozo (Azpeitia, 1956) orain dela 38 urte ingurutik. Eliza ondoko kobatxo "txoko berezia" da Mozorentzat, eta ez da gutxiagorako. Familian betitik izan dute lotura harpearekin, eta orain berak du zaintzeko ardura. Osasunak uzten dion arte mantenuaz arduratzen jarraituko duela dio, "mimo handiz" zainduz, gainera.

Noiz eta nolatan hartu zenuen Parrokiako harpearen mantenuaren ardura?

Ardura familiatik datorkit, nolabait. Txikia nintzela, izebak zaintzen zuen harpea; gogoan dut kandelak jartzera joaten zela. Hura zendu ostean gure amak hartu zuen erreleboa, eta ondoren, nik. Betitik ezagutu izan dugu harpea familian. Ez nuen uste horrenbeste urte igaro direnik, baina dagoeneko 38 urte inguru daramatzat harpea zaintzen.

Ondo ezagutzen duzu haitzuloaren historia, beraz.

Hainbat iritzi eta kontakizun daude harpearen inguruan. Hala ere, jakinekoa da Mariano Ferrer eskultoreak diseinatutakoa dela. Behean, Pilarikaren irudia dago, horren ondoren Done Jakueren eskultura eta goian Lourdeseko amabirjinarena. Eskaileretan Ferrerren sinadura ikus daiteke. Esaten denez, Elizkaleko nahiz herriko bizilagunek eraiki zuten koba, Xoxotetik harriak ekarrita. Garai hartan, jendea oso fededuna zen.

Zertan datza harpearen mantenua? Zein dira zure egitekoak?

Egunero ez baldin bada, bi egunetik behin joaten naiz hara, kandelak ipintzen ditut eta lorak zaindu. Badut borroka bat kaleko katuekin, ez baitituzte landareak bakean uzten, eta ezin izaten ditut nahi bezala mantendu. Duela urte batzuk landareak ez ezik arrain txikiak jartzen genituen harpeko putzuan, baina haiek ere kendu egin behar izan genituen, haurrek eskuekin hartu eta bertan hilda uzten baitzituzten. Gainera, duela urte batzuk izandako arazoak tarteko, goiko solairuko landareak ere kendu behar izan genituen. Hala ere, herriarrek egindako ekarpenari esker, lortu genuen harpea

konpontzea. Horrez gain, jende askok deitzen dit telefonoz une zehatzetan –ebakuntzak, azterketa garaian eta halakoetan– kandelak ipin ditzadan eskatzeko; gehienbat, zorte onaren bila. Haitzuloaren postontzi bat ere badago, eta han utzitako mezuak irakurri eta eskaerei erantzuten diet.

Atsegin duzun lana al da?

Egia esan, bai. Etxean ikusi izan dudana zer bait da, eta niri ez zait batere kostatzen mantenu lan hori egitea.

Dena den, lotura eskatzen duen ardura da. Ba al duzu laguntzarik?

Orain arte ez nuen laguntza askorik behar izaten.

Kanpora joaten nintzenean, oporretan eta, harpearen ondoren bizi den emakume bati eskatzen nion laguntza, eta hura arduratzen zen niri laguntzeaz. Azken boladan gehiagotan eskatu behar izan dut laguntza. Orain, esaterako, hanka ezin mugituta nago, eta ezin naiz haraino joan.

Beraz, badut laguntzen didan pertsona bat.

Jende askok bisitatzen al du haitzuloa?

Kanpoko jendea etortzen da, baina bertakoak ez hainbeste. Askok ez diote baliorik ematen eta ez dute estimatzen; herriar askok ez dute altxor txiki hori ezagutzen. Bisitariak ere ohiko lekuetara jotzen dute sarri: Loiolara, Madalenara... Tarteka, bertan lanean harrapatzen banaute, batzuek eskatzen didate harpea erakusteko, eta nik, noski, erakutsi egiten diet, gustura asko. Doktrinan ibiltzen diren haurrei ere erakusten diet batzuetan, betiere talde txikietan.

Txoko berezia al da zuretzat?

Jakin badakit ez dela nirea, baina nirea izango balitz bezala zaintzen eta mimatzen dut. Askok estimatzen dudana lekua da.

Izango al duzu erreleborik?

Hala espero dut. Pertsona askok Eliza gero eta urrunago ikusten duten arren, pentsatzen dut egongo dela horrelako txokoak zaintzeko prest dagoenik; ezin esan, ordea, zer gertatuko den. Ahal dudana bitartean ahalik eta ondoen zainduko dut txoko eder hau, eta norbaitek erreleboa hartzen baldin badit, primeran. Erreleborik ez baldin badago, berriz, auskalo. Denborak esango du. ■



Sua



ARGAZKIA ETA TESTUA: **ALAITZ RUIZ**

Lau omen dira elementuak, eta elementu horiek guztiak omen gara gu ere. Ura gara, lurra gara, airea, baita sua ere. Lau horiei bosgarren bat gehitzen diogu batzuk. Bihotza.

Gehiago edo gutxiago, denek dute tokia gure barrenean, baita zeresana ere.

Sua, adibidez, pasioa da. Berehala erreakzionatzen duen elementua, gogo biziz. Energia da, indarra, gure barreneko sena argitara ateratzen duena.

Suak aurrera egiten du etengabe, ingurukoak berarekin aurrera egitera erakarriz. Akziora bultzatzen gaitu, abenturara. Iniziatibaren eta borondatearen elementua.

Eta zu? Elementu honekin identifikatzen al zara? ■■■■







IRATI ARANGUREN

Oheko lagunak

Sarritan entzun izan dut "lo bakarrik egiten da ondoen" esaldia. Lehendabizikoz entzutean, "zergatik ote dio hori?", esan nuen neure baitan; oraindik bikotekiderik ez nuenez, pentsatu nuen bizitzan aurrera aurkituko nuela erantzuna. Noizbehinka, han edo hemen, berriro iristen zen nire belarrietara mezu bera. Bikotea izan bai, baina berarekin bizi ez nintzenez, iruditzen zitzaidan bizitzako beste etaparen batean, agian, esaldi hori ulertuko nuela. Sekula ez nintzen ausartzen zergatiaz galdetzer.

Duela urtebete, ordea, "emaztea utzi nuenean, berriro pelutxeak sartu nituen ohean!" esan zuen lagunartean batek. "Hara! Hori naiz ni! Bai, hori naiz!". Barru barruraino iritsi zitzaidan esaldia, eta baliagarria izan zait. Zenbat ate hainbat

maratila diote, eta hala jabetu nintzen bakarrik ondo lo egiten dudan arren, konpainian lo egitea berezia dela sentitzen dudala.

Amak dioenez, haurra nintzela ni esnatzera etortzean, sarritan argia sumatzen zuen izaren artean. Nire aurrenengo panpina Miki izan zen; bai, Mikie sagua. Gorputz biguna eta buru gogorra zituen, pijama urdin leuna zeraman soinean eta bularra estutzean argia egiten zuen. Aurpegia aurpegiaren kontra

**DIOTENEZ, MAITE
DUZUN NORBAITEKIN
LO EGITEAK HAINBAT
HORMONA
ISURARAZTEN DITU**

oheratzen baginen ere, belaunen artean estu-estu esnatzea gogoko zuen saguak, diz-diz eginez eguzki printzekin batera.

Urteak aurrera, Argi gehitu zen familiara. Ez dut sekula hezur-haragizko txakurrik etxean sartzea lortu, beraz, maskota nuela sentitzeko edo peluxe hori etorri zen. Labrador Retriever arrazako zakur kumea zen Argi, goxoa, mimo zalea, umila; ohekide paregabea. Beraz, hau ere barrura.

Gogoan dudanez, luzaroan izan ginen ohean hiru: Miki, Argi eta ni. Baina batzuetan biek bakarrik egiten zuten lo –nik amaren ondora ihes egiten nienean–. Hori ere gogoko bainuen. Nire bizkarra amaren bizkarraren kontra jarrita ametsak ederragoak ziren.

Adinean gora, ordea, zaharregia nintzela sentiarazita,

HAUXE BAI JENEROA!



HAN ETA HEMEN



HIROMI YOSHIDA

Lehenengo gauza

Kazetari batek zera galdetu zidan: "Nola gonbidatuko zenituzke euskara ez dakiten euskal herritarrek euskara ikastera?". Horrelako galderei beti erantzun bera ematen diet: euskara bizirik mantenduko badugu, ez dakitenak euskara ikasteko konbentzitzea baino lehenago egin beharreko zerbait badagoela, euskaraz dakizuenon artean beti –momentu eta leku guzti-guztietan– euskaraz egitea. Egia esateko, oraindik zenbait euskal hiztunek beraien artean erdaraz egiteko ohitura handia dute (ondoan dituzten umeei eta txakurrei, berriz, euskaraz! Baita Azpeitian ere!).

Euskaraz dakizuenok ez badiozue elkarri euskaraz egiten, inork ez dio euskarari garrantzirik emango, eta euskaraz ez dakiten euskal herritarrek honako hau esango dute: "Begira, euskaraz dakitenek elkarri eldaraz egiten diote, orduan zertarako existitzen da euskara eta zertarako ikasi behar dut nik euskaraz?".

Modu horretan, nola gonbidatuko ditugu euskaraz ez dakitenak euskara ikastera? Ezinbesteko pauso hori eman gabe, erdarara jotzen duten euskal hiztunek eta hori onartzen dutenak euskara hilobira bidaliko dute. ■

kopinak ohetik atera ziren. Baina hara! Nerabezaroan, ikastolatik gaua pasatzera egin ohi diren bidaietako batean, ikaskide batek esan zuen berak pelutxea eramango zuela. Lagun gehiago batu ginen proposamenera, eta egun hartatik aurrera, kideak gehitu ziren nire ohean. Beno, kide bakarra, Mikik ordurako ganbaran egiten baitzuen lo; Argi logelako apaletik kendu eta gau eta egun oheko zaindari izendatu nuen.

Diotenez, maite den norbaitekin lo egiteak hainbat hormona isurarazten ditu. Hala nola, serotoninina – zoriontasunaren hormonetariko bat–, oxitoxina –atxikimenduaren hormona– eta dopamina –estresa jaitسي eta lasaitasuna dakarrena–. Gainera, izarapean trukaturako besarkaden eta laztanen ondorioz, tentsio arteriala jaitسي

egiten da eta gorputzeko tenperatura erregulatzea errazagoa da. Era berean, konpainian lo eginda, loaren REM fasea gutxiago eteten da, eta horrek gure atsedena hobetzea dakar, gorputzak gauzez egiten duen erreparazioaren kalitatea hobetuz. Hala, sormenean, memorian, emozioen kudeaketan eta abar eragina du.

Laburbilduz, ahal den heinean konpainian lotaratzen jarraituko dut. Bakarrik lo egin nahi duena ere saia dadila bere erosotasuna topatzen.

Gaur egun, ohatzean hiru gara, ni eta nire bi maitaleak. Sehaskan, berriz, bi: Miki eta Argi.

Eta zuk, nola nahiago duzu lokartu?

Berandu da, bagoaz begiak ixtera. Ondo lo egin. ■

PUBLIKO BATERA PASEATZERA JOAN ETA
K GABE GERATZEN
NEKOA





Aisialdi eredu berri baterako akuilu

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasmailak dituzten Ikasberri Ikastolako, Iraurgi Ikastetxeko eta Urola Ikastolako gurasoak elkartzen hasi ziren orain dela hiru urte. Ordutik, beren seme-alaben jokamolde aldaketak eta aurrez aurreko harremanen galerak sortutako kezkak batuta, lanean jardun dute. "Aisialdi eredu berri bat" eraikitzeko hainbat pauso eman dituzte elkarlanean, udala bidelagun dutela. Maiatzerako tailer eskaintza zabala prestatu dute, hainbat eragilerekin batera.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Nora Alberdi (Kulturaz) eta Nerea Uranga**.

zurriteak bazterrak astindu zituen, eta aurretik gizartean zeuden hainbat kezka iturri potoloago bilakatu ere bai. Beste hainbat ingurumaritan bezala, gaztetzoen eta nerabeen gurasoen artean ere arreta piztuarazi zuen beren seme-alaben artean sumatzen zuten egoerak eta haien jokamolde aldaketak. Kezka komunak izanda, bada, DBHtik gorako ikasmak dituzten Azpeitiko Ikasberri Ikastolako, Urola Ikastolako Zutoin guraso elkarteko eta Iraurgi Ikastetxeko Gurasoen Elkarteko ordezkariak elkartzen hasi ziren 2020an. Etxeratzeak, eskolak *online* jasotzeak...

egunerokotasunean eragina izan zuten, eta zeharka bada ere, "pantailen gainerabilera" ekarri ere bai. "Horrek guztiak gure seme-alabengan ere nabarmen eragin zuen, eta lehendik zetorren pantailen eta sakelako telefonoaren gehiegizko erabilera indartu besterik ez zuen egin", diote ikastetxeetako gurasoen ordezkariak.

Komunean eta elkarrekin zerbait egiteko aukera aztertzen hasi ziren hiru ikastetxeetako gurasoak. Seme-alaben jokamoldeetan aldaketa antzematen dute, hala nola teknologia berrien gehiegizko erabilera eta beren arteko aurrez aurreko harremanen galera. Teknologia berriak tarteko, seme-alabek kontsumitzen dituzten edukien ezagutza eta horien gaineko kontrol falta ere sumatzen dute gurasoek, eta etxeko gazteek balore atzerakoiak jasotzen dituzten sentsazioa dute: "Matxistak eta homofoboak dira eduki asko". Horrekin guztiarekin batera, hizkuntza ohituren aldaketen lehen zantzuak nabaritzen hasi dira seme-alabengan, teknologia berriak erdal hizkuntzetan kontsumitzen dituztelako batik bat.

Susmoak eta kezka mahai gainean jarri ondoren, gurasoek Azpeitiko Udaleko Gazteria Sailera jo zuten, beren sentsazioak partekatzeko, eta horiek uste bezalakoak ziren ala ez jakiteko. Hortik aurrera egindako bidean, bidelagun izan dute udala. Erakunde horrek, baina, ordurako bi galdetegi eginda zeuzkan gazteen artean: batetik, COVID-19ak eragindako izurritearen aurretik eta Elhuyar aholkularitzak bideratuta, 2019ko udazkenean galdetegi bat egin zien hiru ikastetxeetako DBHtik gorako 773 ikasleri, eta 2020ko urtarrian eta otsailan, taldekako saioak egin zituzten DBHko ia 300 ikaslerekin; bestetik, Gaztelekuko hezitzaileek bideratuta, konfinamendu garaian galdetegi bat erantzun zuten DBH1etik Batxilergoko bigarren mailara arteko 755 nerabek.

Galdetegi horien emaitzak aztertuta, gurasoen susmoa baieztatuta gelditu zen. Hala adierazi dute ikastetxeetako gurasoen ordezkariak: "Esaterako, Elhuyarrek bideratutako azterketan, ikasleen erdiek baino gehiagok onartzen zuten asteburuan eguneko sei ordu baino gehiago erabiltzen zutela sakelako telefonoa". Beraz, hausnarketatik haratago, proposamena elkarlanean jorratzeari heldu zioten hiru ikastetxeetako gurasoek.

Lehen urrats txikiak

Helburu orokorrak zehaztuta eta hasitako elkanari helduta, "aisialdi eredu berri bat" eraikitzeke lanean ari dira. Aniztasuna oinarri hartuta, aisialdian seme-alaben zaletasunak eta aurrez aurreko harremanak indartzeko, "herri gisa", denak bat eginda jardutea erabaki dute gurasoek, eta urrats txikiak egin arren, bidea jorratzen joatea nahi dute. Nerabeen hizkuntza ohituren aldaketen aurrean,

Aurreko hiruhilekoan, DBHko ikasleek Dinamoa sormengunean egindako Sorgin Orratza tailerraren une bat.



Ezkerreko eta eskuineko irudietan, Hedatze programaren baitan, Dinamoa sormengunean egindako Sorgin Orratza tailerraren bi une.

Erdiko irudian, hiru ikastetxeetako guraso ordezkariak eta Leire Goenaga zinegotzia eta Edurne Korta Hezkuntza teknikaria, elkarlanerako bilera batean.

euskararen erabileraren ahalduntzea indartzeko lan egitea ere erabaki dute, "eskola orduetan zein eskolaz kanpoko jardueretan". Azkenengo helburu horri lotuta, gurasoek eta udalak azaldu dute herriko ikastetxe denetan Uemaren Hedatu proiektua martxan dela, eta hurrengo pausoa proiektu hori eskolaz kanpoko kirol eta aisialdi monitoreekin lantzea aurreikusita dutela.

Aurreko ikasturtearen bukaeran, berriz, "aisialdia eta ikasleen zaletasunak indartze aldera", bidean beste pauso bat eman zuen ikastetxeetako gurasoen elkarlanak. Hala, 2022ko ekainean herriko eragileekin batera zaletasun tailerrak antolatu zituzten DBH1etik gorako ikasleentzako, eta aurrera begira, "hasitako ibilbidean sakontzeko konpromisoa" hartu zuten gurasoek.

Azken ikasturte honetan –2022-23ko ikasturtean– ikastetxeetan Hedatze programa ezartzeko eskaintza iritsi zitzaizen Eusko Jaurlaritzatik, eta DBH1etik gorako ikasmailak dituzten hiru ikastetxeek egin dute bat eskaintzarekin. Hori dela eta, jardunaldi jarraia dute hiruretan.

Behin aisialdi eredu berri bateranzko hazia ereinda, eta Hedatze programa martxan jarrita, aukerak eta arriskuak aztertze aukera izan dute ikasturtearen lehen ebaluaketak igaro ostean. Atzeman dituzten arriskuen artean, besteak beste, kezka sortu die gurasoei DBHko ikasleek "arratsalde osoa libre" izateak: "Horrek eragin dezake ikasleek pantailen edota teknologia berrien erabilera areagotzea, etxean denbora asko bakarrik pasatzea edota eskolaz kanpoko arratsaldeetako orduak erabat akademizatzea jotzea". Gurasoen arabera, baina, arriskuak nola, aukerak hala ditu Hedatze programak: "Arratsaldea libre izateak aurrez aurreko harremanen bidez beren zaletasunei bide emateko aukera berriak zabaltzen dizkie ikasleei, eta ikastetxeei ikastorduak eta ikastorduak ez diren une hezitzaileak uztartzeko aukera zabaltzen die". Horrez gainera, errefortzu tailerrak eskaintzen dituzte ikastetxeetan arratsaldeko ordu horietan.

Ikastetxe bakoitzak baditu Hedatze programaren baitako tailer propioak, eta azken ikasturteko lehen hiruhilekoetan bakoitzak bere



aldetik egin du DBHko ikasleentzako eskaintza. Dena den, Azpeitiko Udalaren laguntzarekin eta herriko hainbat eragilek parte hartuta –Kulturaz kooperatibak Dinamoa sormen gunean eskaintako Sorgin Orratza izeneko tailerra, adibidez–, tailer bat edo beste egin dituzte ikastetxeetako ikasleek nahasita.

Elkarlanean, bat eginda

Egindako bideari erreparatu ondoren, ibilbidearen hasieran jarritako erronkari "behar bezala erantzuteko", herri gisa jardutea besterik ez dagoela ondorioztatu dute gurasoek: "Aisialdi eredu berri bateranzko bidea egin nahi badugu, ikastetxe guztiok batera, udalaren eta herriko eragileen inplikazioarekin egingo da; bestela ez da egingo". Oinarri hori funtsezkotzat hartuta, eta Hedatze programak eskaintzen dituen aukerez baliatuta, urrats berria egin dute. Izan ere, DBHtik gorako herriko ikasle guztientzako errefortzu tailerrez gainera, gazteei zuzendutako hamar tailer antolatu dituzte maiatzeko, ikasleek beren zaletasunei bide emateko aukera eskainiz.

Saioetan parte hartu edo ez nerabe bakoitzak erabakiko du, eta doakoak izango dira horiek. Gainera, ikastetxeetatik kanpo egingo dituzte, udalaren hainbat azpiegituratan. Ikastaro eskaintza antolatzeko, ikastetxeek, gurasoek, ikasleek, herriko hainbat eragilek eta udalak bat egin dute. Halaber, Hedatze programaren barruan, eragileren edota norbanakoren batek bere ezagutzak partekatzekeo tailerren bat emateko interesa edukiko balu hedatzeazpeitia@gmail.com helbide elektronikora mezua idatz dezake edota ikastetxeetako idazkaritzarekin edota udalarekin harremanetan jarri.

Tailerren helburua, baina, ez da "ikasleek arratsaldeak okupatuta" izatea. Ekimena sustatzen ari diren gurasoen xedea da ikasleek dituzten zaletasunei lagunartean bide ematea, "tailerretatik abiatuta beren gustuko ekintzak ezagutzeko", eta etorkizunean beren kasa, "autoantolatuta", ekintza horiek aurrera eramateko gai izatea. Gurasoen arabera, erronka gauzatu ahal izateko, nahitaezkoa da ikasleak bidelagun izatea: "Ikasleek hitza izan behar dute, beraien

**SEME-ALABEN
INGURUAN DITUZEN
KEZKA KOMUNAK BATU
DITU IKASTETXEETAKO
GURASOAK**

**"AISIALDI BERRI
BATERANZKO BIDEA
EGIN NAHI BADUGU
GUZTIOK BATERA EGIN
BEHAR DUGU"**



Hedatze programaren barruan maiatzeko antolatutako tailerren aurkezpenean, hiru ikastetxeetako ordezkariak, Azpeitiko Udaleko Leire Goenaga Gazteria zinegotzia eta tailerrak emango dituzten eragileetako ordezkariak.

beharrak eta nahiak ezagutarazteko eta horiei erantzun ahal izateko".

Orain dela hiru urte hasitako ibilbidea eta gurasoek "su txikian" egindako lana emaitzak ematen ari da, eta aisialdi eredua berritzeko asmo horretan elkarlanean jarraitzeko asmoa dute. Aisialdi eredu berria eraiki nahi bada, argi dute denek herri gisa eragin behar dutela. ■■■



HEZKUNTZA ESKAINTZA 2023/24

Lanbide Eskola

Hazi, hezi, Mekan ikasi!



AURREMATRIKULA
Maiatzak 8-26ra.

 bulegoa@meka-olgoibar.eus

www.meka-olgoibar.net

HEZKUNTZA ERAGILEAK
Ezkerreko aldean: 12 ikasle bakoitzak 100€

HEZKUNTZA ERAGILEAK
Ezkerreko aldean: 12 ikasle bakoitzak 100€

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- METAL ERAIKUNTZAK
- GIZARTEKATZEA
- GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEA
- HAUR HEZKUNTZA
- DIETETIKA
- AUTONOMIZAZIOA
- KOMUNIKAZIO BITARTEKOTZA **BERRIA!**


ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- SOLDADURAK ETA GALARAGINTZA
- MENDERKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA
- ERIZAITZAREN LAGUNTZA
- MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA
- KARROZERIA
- IBILGAILU AUTOMOBILEN ELEKTROMEKANIKA

ESPEZIALIZAZIO KURTSOAK

- IBILGAILU HIBRIDO ETA ELEKTRIKOEN SISTEMEN MANTENTZE ETA SEGURITASUNA **BERRIA!**
(300 MAILAKO ESPEZIALIZAZIO KURTSOA)
- IBILGAILU ELEKTRIKO ETA HIBRIDOEN MANTENTZA **BERRIA!**
(300 MAILAKO ESPEZIALIZAZIO KURTSOA)

ZERK EGITEN GAITU TOKIKO HEDABIDE?



Euskararen plaza gara, herriaren irudia eta
komunitatearen ahotsa.
Batzen gaituena gara.

Tempus fugit



OIER ETXEBERRIA

Tristea litzateke denborarik ez izatea. "Ea noiz egiten dugun afariren bat" baina "ezertarako astirik gabe nabil". Zorionez, dugun baliozkoenak berdintzen gaitu kexatiok oro: denon egunak 24 ordu dituela, eta kokotean ordulari bana daramagula atzera kontaktetan. Hobe zenbat gelditzen zaigun ez jakinda, baina badaezpada, 1,5x entzuten ditugu Whatsappeko ahots mezuak.

Aspaldi, mendiko ermita batean erloju bat eraikitzeke diru bilketa egiten ari omen ziren, eta gizon bati eskean joan jaitzaizkion zein ordu den jakitearen abantailak goresiz. Honek bere ibilera azalduko zien: Nahikoa lo egindakoan esnatu, gosetutakoan jan eta nekatutakoan ohera joan. Ez zuela pertsonak erlojuen beharrik.

Ildo honetan, fisikari alemaniar txima harroaren pare bat aipu datozkit gogora: lehenengoak dio bizi dezakegun gauzarik ederrena misterioa dela; zorionak, datorrenaren desioan datzala. Bigarrenak, gutxi gorabehera, argiaren abiaduraz eta denboraren konstantziarik ezaz dihardu. Ikerlan horregatik Nobel saria eman ziotelako edo, mendi federazioak bideko seinaleetan espazioa deskribatzeko norabidea eta denbora erabiltzen hasi ziren. Izarraizko Bira, PR GI 214. Urretatxiki-

Goltzibar. 2 ordu 20 minutu. Denbora erlatiboa dela, alegia.

Beharbada, Jon Maia ere Einsteinen erlatibitatearen teoriak ari zen bere *Hezurbeltzak* lanean: "Denbora ez da pasatzen nahiz eta urteak igaro...". Edo Urdangarin gure baitango lurraldeez, non denbora geratzen den. Eta horregatik eraikitzen dugu nork bere zahartzaroa, kandlei putz egiteko erritmo konpartitu batean.

Harritu egiten gara besteen adina kalkulaterakoan zenbaki altuak ondorioztatzen baditugu, denok uste dugu ezagutzen ditugun umeak baino helduagoak ginela haien ikasturtean, eta zenbakien edertasunak kontsolatzen gaitu banaka kunplitu ahala. Batzuetan diogu urteak pasatu egiten direla, eta besteetan, berriz, ezetz, urteak ez direla pasatzen, gelditu egiten direla. Finean, diziiplina militarren kutsu bera darie eskolako txirrinari eta tailerretako sirenei, dagokigun arnasaldi bat ebakiko baligute bezala.

Bizi baratzearen lerroburuak horrela dio: "Garaian garaikoa,

garaiz". Tokiko elikadura ekologikoaz haratago, gainontzeko esparruetara ere eratoritzeko moduko arrazoia dirudi, presaka ibiltzea ez delako txarra, baina berandu ibiltzea bai. Hala ere, beste zenbait, desgaraiko ofizioetan egoskortzen da jaioturteari entzungor eginda. Beti-gazteek inbidia ematen didate, berriz-gazteek ez horrenbeste.

Kuku erloju bati erreparatuko bagenio, orratzei kuerdaren kargak eta penduluak eragiten die. Oszilazio mugimendu bakoitzaren iraupenari *periodoa* deritzo, eta bi aldagairen menpe dago: Lurreko grabitatea eta penduluaren luzera. Printzipio bera dagokie gainontzeko oszilazio elementuei ere, kolunpio bati demagun. Xaloa iruditu zait gure bizimoduak kateetatik zintzilik dauden zabuak bezala irudikatzea. Sasoiko edo unatu kulunkatu, hankekin nahi beste eraginaz, aldizka norbaitek bultza, umeak magalean hartuta erabili edo gaupasaren ondoren atsedean hartzeko baliatu. Ez du balantza bat bestea baino azkarrago egingo.

Behin Lazkao Txikik laguneren zain zegoen gizon batekin topo egin omen zuen. Hark itxaroteaz aspertuta zegoela eta denbora egiten ari zela esan izango zion. "Denbora egiten ari al haiz, e? Badaukak orduan nik adinako abildadea". ■

**BIZI BARATZEAREN
LERROBURUAK
HONELA DIO:
"GARIAIAN GARAIOA,
GARAIZ"**

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukl.eus o 943-81 38 41

"Ahalduntzean ez ezik, osasunean ere onurak eragiten ditu dantzak"

JAIONE ALBENIZ DANTZARIA ETA AKTOREA

Azpeitiko Emakumeen Txokoan sabel dantza irakasten du Jaione Albenizek. Gaur egun, Donostian bizi da, eta dantza eskola bat du han: Segastopol. Han ez ezik, hainbat emakumeen etxetan ere ematen ditu saioak, eta uste du emakumeen ahalduntzerako tresna izan daitekeela dantza. Antzerkian ere aritzen da.

Testua: **Ihintza Elustondo**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Sorterria 20 urterekin utzi zuen Jaione Albenizek (Azpeitia, 1968), eta gaur egun, Donostia eta Hernani (Gipuzkoa) artean bizi da. Txikitatik ditu pasio dantza eta antzerkia, eta bi diziplina horiek ditu ogibide eta bizimodu. Ofizioa eta afizioa eskutik helduta doaz haren eguneroko martxan. Gosaltzen ari denean ere, dantzako mugimenduak buruan bueltaka izaten dituela dio.

Aktorea eta dantzaria zara. Nolatan hasi zinen mundu horretan murgiltzen?

Betidanik eman izan dit atentzioa antzerkiak, eta dantzak ere bai; dantzak gehiago. 19 urterekin edo, Dantzerti antzerki eskolan hasi nintzen ikasten, Donostian. Lau urteko ikastaroa egin nuen han, eta antzerki eskola izanagatik, dantza ere lantzen genuen. Dantzertin lau urteak bukatu nituenean, bestelako ikastaroak egiten jarraitu nuen. Maria Martinez izeneko emakume batekin dantza garaikidea ikasten hasi nintzen, baina ez nekien hark sabel dantza ere egiten zuela. Asteburu batean, sabel dantzako ikastaro trinko bat

antolatu zuen; izena eman nuen, eta erabat harrapatu ninduen sabel dantzak. Gaur arte.

Zer deskubritu zenuen ikastaro hartan?

Musikak, mugimenduak... zerbaitek harrapatu ninduen. Lehen ikastaroan, ez zitzaizkidan mugimenduak ateratzen; mugimenduak oso borobilak dira, eta oso karratua sentitzen nintzen. Hasieran kostatu arren, musika barruraino sartu zitzaidan. Badauka zerbaitek sabel dantzak; aurretik ere ematen zidan atentzioa.

Txikitatik datorkizu ikuskizun munduarekiko harra, beraz.

Bai, eta ez dakit zergatik. Ez da etxean transmititu didaten zerbaitek.

Gaztaroan Dantzertiko ikastaroa egin zenuen, gero sabel dantza lantzen hasi zinen... Eta zer etorri zen gero? Nola jarraitu zenuen mundu hori esploratzen?

Antzerkia egiten ere jarraitu nuen, baina sabel dantza ezagutu nuenetik, hori bihurtu da gehien jorratu dudana bidea. 25 urte baino gehiago daramatzat sabel dantza egiten. Aurrena sabel dantzarekin hasi nintzen, gero arabiar herrialdeetako folkloreak deskubritu nituen: India, Bollywood... Espiritu ijito samarra daukat; estetikoki ere nabaritzen zait. Dantza zingaropak



ere landu nituen, flamenkoaren inguruko ikastaroren bat ere jaso dut, baina gehiago gustatzen zait oinutsik dantzatzea. Dantza ezberdinak deskubritu ditut, baita kultura ezberdinak ere. Dantzarekin hasi nintzen, baina, azkenean, horrek mundu zabalagoa deskubritzera eraman nau. Arabiera ikasten ere hasi nintzen, baina horretarako denbora behar da.

Badaukazu arabiar munduarekiko halako lotura bat.

Bai, bai. Arabiarrek ikusten nautenean, askotan marokoarra al naizen galdetzen didate [barreak].

Sabel dantza eta sexy dance ikastaroak ematen dituzu Azpeitiko Emakumeen Txokoa. Sabel dantza jende gehienak jakingo du zer den, baina zer da sexy dance?

Sexy dance sabel dantzaren antzekoa da, baina beste energia bat dauka, basatiagoa. Sexy dance ikastaroan takoiak janzten ditugu, asko ibiltzen gara, erritmoa nahiz jarrera lantzen ditugu...

Mugimenduak, bestela, sabel dantzaren antzekoak dira. Gorputz zati berdintsuak mugitzen dira, baina energia basatiagoarekin.

Emakumeen Txokoko Ahalduntze Eskolen barruan ematen dituzu saioak. Dantzak balio al du emakumeak ahalduntzeko?

Bai. Sabel dantza, nire ustez, emakumeen gorputzarentzako diseinatutako dantza da. Sabel dantza egitean gorputz osoa mugitzen da: bularrak, besoak, hankak, burua... Baina sabelaren zonaldea asko mugitzen da, eta emakumeontzako onuragarria da hori hilerokoarekin gaudenean, haurdunaldian, menopausia garaian... Emakumeon bizitzan garrantzi handia duen gunea da sabel aldea. Eta orain, agian, gutxiago, baina lehen emakumeoi beti esaten ziguten balio maskulinoak eduki behar genituela. Zera esan digute bizitza guztian: "Ez mugitu ipurdia, eutsi". Eta sabel dantzarekin, gorputzari aukera bat ematen diozu: emakumeok izugarrizko indarra izan dezakegu norbere gorputzarekin, emakume gisa, mugimendu borobilak nahiz feminitatea landuta... Hori orain arte ez da baloratu. Energia femenino hori deskubritzen hastean, emakumeengan aldaketa bat gertatzen da; hori nabaritzen dut saioetan.

Zer aldaketa?

Hasieran, gogor-gogor eginda egoten gara, eta mugimendu linealak irteten zaizkigu. Energia maskulinoarekin lotzen dira mugimendu linealak, eta oso barneratuta dugu energia hori landu behar dugula. Sabel dantzak, ordea, beste

energia bat lantzea eskatzen du; mugimenduak borobilak dira, eta energia femeninoarekin lotzen dira horiek. Emakumeok barruan energia hori daukagu, eta hori kanporatzen hasten garenan, hasieran kostatu egiten bazaigu ere, pixkanaka horretaz gozatzen joaten gara. Gero eta gusturago sentitzen gara emakumeok norbere gorputzarekin. Aldaketa fisikoa izateaz gain, energia aldaketa horrek emozionalki ere eragiten du.

Sabel dantzak emakumeei onurak eragiten dizkiela diozu. Zer onura?

Autoestimua hobetzen du, eta norbere gorputza ezagutzen eta maitatzen laguntzen du. Hasieran, ispiluaren aurrean jarri eta mugimendu borobilak egitean, askok zera esaten dute: "Baina nola egingo dut nik hori?". Gero, baina, horretaz gozatzen hasten dira. Horrez gain, osasunean ere eragiten ditu onurak: hileroko mingarriei aurre egiten laguntzen du, haurdunaldiaren ostean gorputza bere onera itzultzen ere bai, menopausian, bizkarreko minak saihesten... Eta gorputza bere lekuan kolokatzeko ere oso lagungarria da dantza egitea. Ahalduntzean ez ezik, osasunean ere eragiten ditu onurak dantzak. Norbere gorputza onartzen, maitatzen... laguntzen du. Zoragarria da dantza.

Sabel dantza gorpuzkera jakin bat duten emakumeekin lotu ohi da, baina edonork egiteko modukoa al da?

Sabel dantza egiteko ez daukazu 90-60-90 neurrietako gorputza izan beharrik; edonork egin dezake. Sabel dantzak, berez, Egipton dauka jatorria, eta hango emakume asko oso handiak dira. Halako emakumezko gorputz handi bat ondo mugitzen ikustea zoragarria da. Askotan, soltatzeko zailtasun handiagoa izaten du emakume argal batek. Ez gaude prestatuta, ohituta, era jakin bateko gorputzak dantzan ikusteko. Jendea barkamena eskatuz etorri izan zait dantza eskoletara, "ni gizena nago dantza egiteko", esanez. Norbera dagoen bezala dago, bakoitzak daukan gorputza dauka, eta denok egin dezakegu dantza. Eta, gainera, niretzako horixe da politena: gorputz ezberdinak dantzan ikustea eta bakoitzak bere mugimenduari zer esentzia ematen dion preziatzea.

Emakume denak animatuko zenituzke, beraz, dantzatzera?

Bai, den-denak. Eta adin guztietakoak. Ez da gaztetan egin daitekeen zerbait bakarrik.



Gainera, nire ustez, adin batetik aurrera jende gehiago harrapatzen du sabel dantzak. Agian, gazteagoek beste energia bat behar dute; potenteagoa. 40 urteren bueltan hartzen du jende askok norberarentzako denbora, eta gustatu egiten zaie sabel dantza. Ez da adin kontua.

Emakumeen etxe askotan ematen dituzu ikastaroak, eta horrez gain, dantza eskola bat duzu Donostian: Segastopol. Zure bizitzaren zati handi bat hartzen du dantzak, une honetan, ezta?

Eta antzerkiak ere bai. Antzerkia irakasten dut ikastetxeetan, eskolaz kanpoko tailer moduan, eta akademia batean ere bai. Ez dut inoiz antzerkia abandonatu. Segastopoleko titiriteroekin 25 urtez jardun nuen kale antzerkia egiten, esaterako. Bi arloak gustatzen zaizkit, eta biak uztartzen ditut.

2004an zabaldu zenuen zure eskola, eta ordutik, askotariko dantza saioak ematen dituzu han.

Bai, hala da. Ekialdeko dantzak, Indiakoak,

pertsiarak, ijito dantza, tribal, tribal ats, sexy dantza... irakasten ditut. Egia esan, ordu asko pasatzen ditut egunero dantzan. Izan ere, dantzan ari ez banaiz, eskolak prestatzen aritzen naiz. Denbora guztian daukat buruan dantza; gosaltzen ari naizenean ere, askotan buruan izaten ditut koreografiaren pausoak. 24 orduz daukat buruan dantza.

Zer ematen dizu dantza irakasteak?

Pila bat. Denetariko taldeak egoten dira, baina gozamina da jendeak nola erantzuten duen ikustea, jendearen energia nabaritzea... Eskolak emanez pila bat ikasten da. Asko ikasten da gorputzari buruz, eta emozionalki ere ederra da; hartu-eman bat da dantza. Ez dut imajinatzen nire bizitza dantzarik gabe. ■■■

"ESPIRITU IJITO SAMARRA DAUKAT; ESTETIKOKI ERE NABARITZEN ZAIT"

"NORBERE GORPUTZA EZAGUTZEN ETA MAITATZEN LAGUNTZEN DU SABEL DANTZAK"

"SABEL DANTZA EGITEKO EZ DAUKAZU 90-60-90 NEURRIETAKO GORPUTZA IZAN BEHARRIK"




MUGARIK EZAGUTZEN EZ DUEN HARRIBITXIA

Mikel Morris eta Hiromi Yoshida
HIZKUNTZALARIAK

Txikia bere handitasunean, munduko hizkuntzen artean dagoen *rara avis*-etako bat da euskara. Euskal Herriko zazpi lurraldeetan hitz egiten da hizkuntza, baina ez da euskal jatorrikoa izan behar euskara ikasteko, hitz egiteko, harekin bizitzeko, erabiltzeko eta maitatzeko. Hiromi Yoshida japoniarra eta Mikel Morris estatubatuarra dira horren adibideetako bi. Hizkuntzalariak biak, euskara ikasteko hautua egin dute biek.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Alex Berasategi**.



Coloradon jaioa, Zarautzen bizi da Mikel Morris (Denver, Colorado, AEB, 1957). Ingeleseko akademia bat dauka kostaldeko herrian, eta euskara eta ingeleseko Morris hiztegiaren sortzailea ere bada. Hiromi Yoshidak (Yuzawa, Japonia, 1960), berriz, Japoniako bi unibertsitatetan egiten du lan linguistika eta euskara eskolak ematen. Tokion bizi da, baina urtean pare bat aldiz joan ohi da Azpeitira. Bidaia horietako bat aprobetxatuta bildu ditu GUKAk bi protagonistak Azpeitiko Basazabal jauregian, eta beraien esperientziez, eta, oro har, euskaraz aritu dira hizketan.

Nor da Hiromi Yoshida eta nor Mikel Morris?

Hiromi Yoshida: Japoniarra naiz, eta Tokion bizi naiz. Ez naiz Euskal Herrian bizi, baina urtean bitan-edo etortzen naiz—pandemia garaian ez; orduan ezin izan nuen etorri—. Orain dela urte asko, Tokion hasi nintzen euskara ikasten. Suzuko Tamura zen gure irakaslea; Euskal Herrian ere nahiko ezaguna zen Suzuko [hizkuntzalari japoniarra 2000. urtean egin zuten ohorezko euskaltzain]. Bost lagun aritu ginen haren saioak jasotzen, baina ez irakasgai

moduan; izan ere, Suzukok nahi zuelako ematen zituen euskarako klaseak, euskara ikasteko taldetxo bat sortu nahi zuelako. Gerora, euskara ikasten jarraitu nuen, baina mintzapraktika egitea eta entzumen lantzea oso zaila egiten zitzaidan Tokion. Hori dela-eta erabaki nuen Euskal Herrira etortzea. Lazkaora [Gipuzkoa] joan nintzen, hango Maizpide euskaltegira; hamar hilabetez aritu nintzen barne-tegi hartan euskara ikasten. Gero, Tokiora itzuli eta unibertsitate masterra egiteko prozesuan sartu nintzen, linguistikako departamentuan. Nire lanerako gaia euskara zen, baina ez nuen nahi euskara batua lantzea, euskalki bat hautatu nahi nuen. Tokion, kasualitatez, Azpeitiko mutil bat ezagutu nuen; laguntza eskatu nion hari, eta Azpeitiko euskararen inguruko lanketa egin nuen. Hari esker bukatu nuen masterra, eta Azpeitiko euskararen inguruan egin nuen tesia ere. Orain, bi unibertsitatetan egiten dut lan linguistika eta euskara klaseak ematen.

Mikel Morris: Nire kasua oso bitxia da. Euskal Herrira lehendabizikoz 18 urte nituela etorri nintzen, Francoren bizitzako azken urtean, 1975ean. Kasualitatez, Mendietan [Nafarroa] nengoela entzun nuen lehen aldiz euskara. "Zer da hori?", pentsatu nuen neure baitan, eta pixkanaka aztertzen hasi nintzen. AEBetara itzuli nintzen, eta han nengoela erabaki nuen Euskal Herrira bueltatzea. Zorionez, Iruñeko lagunak nituen ordurako, eta haiek Lazkaora [Gipuzkoa] joatea gomendatu zidaten; garai hartan, baina, oraindik ez zegoen martxan Maizpide barne-tegia. Beasainen [Gipuzkoa] bizi izan nintzen, eta gero, Ataungo [Gipuzkoa] baserri batean ere egon nintzen. *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* liburuan jasota dagoen egoeraren antzekoa zen nirea, baina erromantzerik gabe. Gero, nire bizitzako proiektua izango zenarekin hasi nintzen, hiztegiarekin, alegia. Nik ez nekien hiztegi bat nola egiten zen, baina hori nork daki! 19 urte jo eta ke aritu ondoren bukatu nuen proiektua. Euskal Herritar batekin ezkondu nintzen, hiru seme-alaba ditut, Zarautzen bizi naiz eta ingelesakademia bat daukat.

Euskara lehen aldiz entzutean, zer sentipen izan zenituzten? Hizkuntza erabat arrotza izango zen zuentzako, ezta?

H. Y.: Arraroa, oso arraroa egiten zitzaidan. Ezezaguna eta ezo-hikoa zen niretzako.

M. M.: Niretzako espainiera zen, baina ezertxo ez nuen ulertzen; tutik ere ez.

Euskal kulturara hurreratzeko lehen pausoa izan al zen euskara? Edo aurretik bazenuten euskal kulturaz edo Euskal Herriaz zertzeladarik?

H. Y.: Niri hizkuntza bera interesatzen zitzaidan. Linguistika ikasten ari nintzen, eta mundu horretan genbiltzanontzako oso ezaguna zen euskara. Banekien euskara izeneko hizkuntza bat existitzen zela. Nire lehen helburua euskara bera izan zen.

M. M.: Banekien euskaldunak bazirela, filmen birtatez jakinda. Bazen euskaldunak agertzen ziren film bat; buruan txapela zutela, haitzetan saltoka, indiarak hiltzen, beti irrintzika. "Zein dira hauek?", pentsatzen nuen neure artean. Bestalde, 9 urte nituela *basque* hitza aurkitu nuen entziklopedia batean, eta euskaldunak oso misteriotsuak zirela zioen. Gerora, Euskal Herrira etorri nintzen, eta *basque* horiek, euskaldunak, ikusi nituen.

Bitxia ere bada Japonian, Euskal Herriatik milaka kilometrorra, hain urruti, euskara ezagutzea, ezta?

H. Y.: Linguistikaren munduan nenbilelako izan nuen euskararen berri. Nire inguruko zen jendeak ere aukeratzen zituen hizkuntza txikiak ikasteko. Horregatik, niretzako ez da batere harrigarria hizkuntza minoritario bat aukeratzea.

Agian, euskaldunak harritzen dira euskara bezalako hizkuntza txiki bat ezaguna delako mundu mailan.

M. M.: Ez zarete konturatzen, baina euskara oso famatua da hizkuntzalarien artean. Ni ere hizkuntzalaria naiz, eta euskara oso arraroa da, harribitxia da. Bada hizkuntza bat Pakistanen, burushaski izenekoa, Gilgit-Baltistan eskualdean hitz egiten dena. Bada, inork ez daki zer jatorri duten burushaskiak eta euskarak. Zer ote dira hizkuntza horiek?

H. Y.: Euskara baino txikiagoak diren hizkuntza asko daude munduan.

Behin euskara ikasteko pausoa emanda, zer egin zitzazuen zailena?

H. Y.: Aditzen sistema ikastea ez zitzaidan hain zaila egin. Agian, gauzak buruz ikastea kostatu zitzaidan gehien.

M. M.: Hitzen ordena ikastea egiten zitzaidan zaila niri. Hiromirentzako ez da hain zaila euskarazko esaldietako hitzen ordena; izan ere, japonierazkoen antzekoa da. Baina nire kasuan, adibidez, ez da horrela: "Dendara joan nahi dut" esaldian, esaterako, ingelesaren ordenarekin alderatuta, dena alderantziz dago. Gero, gainera, gauzak pixka bat



"Linguistika ikasten ari nintzen, eta mundu honetan genbiltzanontzako oso ezaguna zen euskara"

"Hizkuntza guztiak dira zailak, eta ikasterako orduan dituzun erreferentzietan dago gakoa"

"Euskararen erabilera indartzeko euskarazko edukiak izatea oso garrantzitsua da"

Hiromi Yoshida

konplikatu egiten dira. Hemen adibide batzuk: "Ez dut dendara joan nahi" edo "ikusi dudana gizona nire aita da". Pixkanaka ohitu egiten zara, baina hasieran oso zaila egin zitzaidan guztia.

H. Y.: Mikelek esan duen bezala, hitzen ordena ikastea ez da batere zaila izan niretzat. "Atzo ikusi nuen gizona" edo "hau hori baino txikiagoa da", esaterako, halaxe, ordena horretan, esaten ditugu japoniarrez ere. Ezezko esaldietan, orde, kristoren buelta eman behar zaie euskarazko esaldiei.

M. M.: Beste arazo bat euskalkiak izan ziren niretzat. Hasieran, aditzen forma guztiak ikasi nituen: "Edo-nori gerta dakioke", "eman diezaio beste bat", "betor beste bat"... Lagunak-eta harrituta geratzen ziren zeinen ondo hitz egiten nuen entzundakoan. Kontua da nik ez nuela beste molderik ezagutzen. Liburuetan hala zela agertzen zen, eta nik errepikatu egiten nuen. Gero konturatu nintzen herriko seme-alabek ez zekitela –esan dezagun– goi mailako euskara batu hori hitz egiten. Horregatik ez nion inori ulertzen; batua ulertzen nuen, baina herriko euskalkia ez.

Zuen inguruan euskara ikasi behar zenutela esan zenutenean, zer pentsatu zuten? Naturalizat hartu al zuten erabakia?

H. Y.: Naturalizat? Ez, ez, ezta pentsatu ere. "Zertarako behar duzu? Zertarako nahi duzu euskara?", galdetu zidaten.

M. M.: "Why?" [zergatik ingelesez], galdetzen zidaten lagunek. Euskal Herrian nintzela erabaki nuen euskara ikastea, AEBetan ikastea ezinezkoa zen eta. Gaztea nintzenean ez zegoen Internetik, eta ez zen posible euskara *online* ikastea.

Biok primeran hitz egiten duzue euskaraz. Asko kostatu al zitzaizuen hizkuntza menderatzea? Zenbat denbora behar izan zenuten?

H. Y.: Hori bai dela galdera zaila. Ez dakit zenbat denbora behar izan nuen esaten. Lazkaora joan nintzenerako gramatika nahiko ondo nekien, baina hitz egiteko arazoak nituen eta entzumenarekin ere ez nintzen ondo moldatzen. Gramatika nahiko ondo nekienez, baina, bosgarren mailan-edo sartu ninduten; besteek ondo hitz egiten zuten, baina nik ez. Maiatza izango zen hasi nintzenean, eta uste dut uztaila edo abuztua izango zela hitz egitera soltatu nintzenerako. Dena den, esan behar dut ez nuela euskara hitz egiten hasteko lotsarik izan.

M. M.: Ondo gogoan daukat urtarilean hasi nintzela euskara ikasten. Hasieran hitz solteak esaten nituen, eta zalantza asko izaten nituen, baina behin, Ataunera bidean autobusez nindoala, leherketa antzeko bat izan nuen nire barrenean, eta hizketan hasi nintzen; maiatza-edo izango zen. Egun osoan praktikatzen aritzen nintzen: ohe gainean nuen aditzen taula, eta harekin jarduten nuen. Horrela ikasi nuen euskara.

Euskara bereziki hizkuntza zaila dela esan ohi dute. Akaso, gauza bera esan daiteke munduko beste hizkuntzei buruz ere. Zer iritzi duzue?

H. Y.: Nire ustez, munduko hizkuntza guztiak dira zailak. Hizkuntza bat sistema oso konplikatu da. Denak dira zailak, eta ikasterakoan dituzun erreferentziak dira gakoa. Gaztelaniaz baldin badakizu, zuretzat oso erraza izango da italiara, frantsesa edota portugesa ikastea. Nire kasuan, baina, japoniera nondik datorren ez dakigu, eta, beraz, ez daukat beste hizkuntza bat ikasteko erreferentziarik.

M. M.: Mundu guztiak uste du espainiera oso erraza dela ikasteko. Hori gezurra da!

H. Y.: Oso zaila da. Gaztelaniaren aditz sistema oso konplikatu da.

M. M.: Nik txikitan portugesa ikasi nuen, eta horrek erraztu zidan gero espainiera ikastea. Baina portu-

gesa espainiera baino mila aldiz errazagoa zen niretzako. Euskara, berez, ez da zaila; izan ere, Hiromik esan duen bezala, hizkuntza guztiak dira zailak.

Kasu desberdina da zuetako bakoitzarena: zu, Hiromi, Tokion bizi zara; zu, Mikel, Zarautzen, eta zure egunerokoan inguruan duzu euskara.

M. M.: Ez pentsa. Akademia bat daukat, eta derri gorrez ingelesez hitz egin behar izaten dut. Nire emaztea, berriz, Iruñekoa da, eta nirekin normalean erdaraz edo ingelesez hitz egiten du. Euskaraz behar bezala hitz egiteko beharrezkoa da lagun euskaldunak edukitzea, eta batzuetan nahikoa da bost lagun egotea eta batek euskaraz ez jakitea derri gorrez espainierara jo behar izateko. Beraz, niretzat zaila da euskaraz behar bezala bizitzea, nahiz eta Zarautzen bizi naizen.

Lagun artean lehen aldiz euskaraz hitz egin zuenean harriduraz hartu al zintuzten?

M. M.: Lehen aldi hartan bai, baina ohitu dira jada. Oso ezaguna naiz Zarautzen, denek dute nire berri, herri txikia da eta.

Japonian bizita, erraza egiten al zaizu euskara maila mantentzea, Hiromi?

H. Y.: Ez zait hain zaila egiten. Euskara ikasten hasi nintzenean ez zegoen Internetik, baina orain bai. Japonian ez dut euskaraz hitz egiten, baina egunero idazten dut mezuren bat edo bi, eta irakurri ere euskaraz irakurtzen dut. Horrek asko laguntzen dit. Gainera, askotan ahozko mezuak bidaltzen ditut, eta bueltan ahozko mezuak bidaltzeko ere eskatzen diet. Arinagoa da horrela komunikatzea, eta ikasteko modu hobea da niretzat.

Zenbatetan esan dizute: "Kontxo, japoniar bat euskaraz!".

H. Y.: Hasieran, izugarritzko sorpresarekin hartzen zuen jendeak, baina orain gero eta gutxiago hartzen dira. Euskal Herrian ere, gero eta atzerritar gehiago bizi dira, asiar jatorrikoak ere bai tartean, eta haien umeak ere joaten dira ikastoletara eta haiek ere euskaraz egiten dute. Gero eta ohikoagoa bihurtu da atzerritarrek euskara hitz egitea, ez da hain harrigarria dagoeneko.

Urtean behin edo bitan etortzen zara Euskal Herrira. Zer egiten duzu bidaia horietan?

H. Y.: Lan batzuekin etortzen naiz beti. Nire buruari gai bat jartzen diot beti, eta horri buruzko lana egiten dut. Adibidez, azpeitiar batekin aritzen naiz egunero pare bat orduz; galderak egiten dizkiot



"Ohe gainean aditzen taula bat nuen, eta horrekin egoten nintzen egun osoan. Horrela ikasi nuen euskara"

"Hiztegia egiterakoan arazo handiena hitzak biltzea eta baliokideak aurkitzea izan zen"

"Garrantzitsua da euskalduntzea, baina ez bakarrik hizkuntza aldetik, baita sentimenduen aldetik ere"

Mikel Morris

gauzak nola esaten diren-eta jakiteko. Euskal Herrira etorritakoan, normalean, Azpeitian egoten naiz, baina beste herri batzuetan ere izana naiz halako lanak egiten: Zarautzen, Zumaian edo Zestean, adibidez.

Morris izeneko euskara eta ingeles hiztegia da zure lanik ezagunena, Mikel. Nola ekin zenion proiektu horri?

M. M.: Garai hartan ez zegoen halako ezer ere. Euskarazko hiztegi gehienak oso txarrak ziren, nire uste apalean balio handirik ez dutenak. Ingeleseztako hitz edo esaldiak euskaraz nola esaten ziren galdezka ibili nintzen, eta Euskaltzaindiko kideekin ere hitz egin nuen; pentsa, hitz batzuk euskaraz nola esaten ziren ez zekiten haiek ere. Horregatik, arazo handiena hitzak biltzea eta baliokideak aurkitzea izan zen, eta gero haiek hiztegian sartzea. Oso zaila izan zen prozesua.

Hiztegi baten lana ez da inoiz amaitzen. Halako lanek aldiro elikatzea eskatzen dute...

M. M.: Horretan ari naiz. Baina arazoa da, gaur egun, Eusko Jaurlaritzak ez duela ezer egin nahi. Hiztegi gintza, behintzat, akabo! Dena da itzultzaile automatikoa, eta itzultzaile automatikoa ona izan dadin beharrezkoak da esaldi paraleloak egotea.



Dena den, berdin zaie, eta hori oso kaltegarria da euskararentzako.

Azken datuen arabera, euskararen kale erabilera behera egin du gazteen artean. Gero eta euskara gutxiago entzuten da kaleetan. Kezka sortzen al dizue horrek?

H. Y.: Kezkatuta nago, baina alde linguistikotik begiratuta, prozesu naturala dela ere esan daiteke, eta oso zaila izango da hori geldiaraztea. Euskararen erabilera indartzeko oso garrantzitsua da euskarazko edukiak izatea.

M. M.: Oso garbi daukat: axola duena edukia da. Adibidez, Netflix bezalako plataformetan ez dago euskarazko azpiztitulurik. Orain, lehen baino gehiago dago, bai, baina dagoen hori ez da nahikoa. Beti sortzen da erdarazko edukia, eta gero eta gehiago egiten da ingelesez. Gaur egungo gazteak, batzuetan, euskaraz baino hobeto moldatzen dira ingelesez. Kontzientzia kontua ere bada. Katalunian, adibidez, jo eta ke ari dira hizkuntza goratzen, baina Euskal Herrian euskara hizkuntza txikia dela pentsatzen da, eta horregatik, erdizka egiten dugu,

hau da, erdia euskaraz eta beste erdia espainieraz –ez dut *gaztelera* hitza inoiz esaten; espainieraz diot jendea pixka bat nirekin haserretzeko–. Espainieraz egin nahi badute ekoizpena, egin dezatela, baina gero ez daitezela etorri gure nortasunaz edo gure hizkuntzaz hitz egitera; izan ere, euskaraz egiteko aukerak badaude. Orain 40 urte, Euskal Herrira etorri nintzenean, oso txarra zen euskararen egoera, baina etorkizunera begira itxaropena bazegoen. Gaur egun, gazte askoren –ez guztiena– hizkera oso pobrea da. Hala ikusten dut nik, behintzat.

H. Y.: Ikastolei esker, gero eta euskal hiztun gehiago sortu dira. Kontua da jakin badakitela, baina ez dutela euskara erabiltzen. Horregatik, Mikelek esan duen bezala, oso garrantzitsua da euskarazko edukiak izatea. Gaur egungo umeek ez dute telebistarik ikusten, baina YouTube bai, eta han euskarazko eduki oso gutxi dago. Hori dela eta, derrigorrez jo behar izaten dute gaztelera edukietara.

M. M.: Gero eta etorkin gehiago iristen da Euskal Herrira. Haiekin zer egin behar da? Benetan integratzen al dira? Ez. Hemen ditugunak dira baskoak eta bestetarrak. Denok gara euskaldunak, baina badirudi euskaldun izateko oraindik ere baskoa izan behar dela. Hori burutik kendu arte euskara hizkuntza etnikoa izango da, eta etnikoa den bitartean arazoak izango ditu. Garrantzitsua da euskalduntzea, baina ez bakarrik hizkuntza aldetik, baita sentimenduetatik ere.

Beraz, zuen ustez gazteentzako euskarazko edukia sortu behar da, eta era berean, erakundeek lanean jarraitu behar dute euskara sendotzeko. Ezin al da segurutzat jo euskara bizirik iraungo duela?

M. M.: Naziogintza da garrantzitsua, eta Euskal Herriko biztanle guzti-guztiak euskaldunak sentitzea; ez politika aldetik –politikan ez naiz sartuko–, kultura aldetik, baizik. Denok euskaldunak baldin bagara, horren gainean eraiki behar dugu euskal kultura. Ez baskoak batetik eta etorkinak bestetik; batu egin behar dugu.

Euskara oraindik ere arma politiko bezala erabiltzen dute batzuek. Gizartean, edo politikaren munduan, behintzat, normalizazio falta dagoela uste al duzue?

M. M.: Inongo zalantzarik gabe. Azken batean, dena da politika. Etsi gabe jarraitu behar da gauzak eskatzen; etsipena baldin badago, jai izango dugu



denok, beste irtenbiderik ez dago. Gaur egungo gizartea nolakoa den ikusita, beharrezkoa da denon artean kultura sendo bat eraikitzea. Baina mundura begira dagoen kultura izan behar du; ez ditu soilik jaso behar baskoen kontuak, munduko gauzak jasoko dituen kultura izan behar du. Azken batean, euskaldunak izateaz gain, gizakiak ere bagara. Hori kontuan hartu behar da, bestela jai daukagu.

Euskal Herritik kanpo jaiotakoak zarete biok, eta biok ikasi duzue euskara. Nola bultzadaiteke euskara ez dakien pertsona bat hizkuntza hori ikastera?

M. M.: Oso garbi daukat. Kanpotar bati esan da-kioke –kanpotarra izan daiteke ni bezalako norbait, anglosaxoi bat, edo izan daiteke txinatar bat, edo Valladolidedeko bat– euskara ikasiz gero, gutarra izango dela. Hala ez bada izango, zertarako ikasi behar du euskara? Euskara ikasi eta hemengoa ez dela esaten bazaie... Halako jarrerekin ez goaz inora. Konbentzitzeaz gain, horregatik da beharrezkoa integratzea, beharrezkoa da nazio bat egitea. Eta hori gertatzen ez den bitartean, euskara kili-koloko ibiliko da beti. Hori da nire ustea, baina agian oker nago.

Zuei zer eman dizue euskarak?

H. Y.: Niri gauza asko. Nire helburua hizkuntza bera neureganatzea zen, eta hori lortu dut nolabait. Baina, aldi berean, euskararen bitartez lagun pila bat egin ditut, eta hori altxorra da niretzako.

M. M.: Euskara hizkuntza izugarri interesgarria da, ikaragarria; oso txikia izan arren, hain da aberatsa... Oso hizkuntza berezia eta maitagarria da euskara. ■



Ikusi eksklusiban Mikel Morrisi eta Hiromi Yoshidari egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



PUBLIZITATEA



ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

EGUZKI
belarrenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 AZKOITIA
Urtzarte 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

IRENE ALTUNA
JOMADENA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.irenealduna.com



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51

KIRURI
JATETXEA



Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnua.: 943 81 50 08
Faxa.: 943 15 03 62

Tuba
ehelkularitza

Analakuntza:
fisika
jenerala
konizalea

Gestioi lanak
Finan. administratzaia
Gestio. yerbosilarioa

Tfn. 943 157 329 Faxa. 943 157 379
Buzketa: nafra. 48-4. 48040 Alkiza (Bizkaia)



**JARRI HEMEN
ZURE
IRAGARKIA**

Aiertza Autoak
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiertza@aiertzaautoak.com



EuroTaller MULTIMARKA ZERBITZUA

adi
ARTE ETA
DISENU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 20 08
www.adiadina@gmail.com
Matrikula urte berriaren zabalik

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urteko: 618 96 49 95 / Jan. 649 12 02 71
ikaargilana@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarria@gmail.com helbide elektronikora maiatzaren 17a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta. Apirileko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 7. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Ane Agirre bazkidea izan da irabazlea.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Munduko lanik onena topatu dut Lintzan"

BENI ODRIOZOLA ATERPEZAINA

Duela 26 urtetatik aterpezaina da Beni Odriozola. Pirinioetako Lintzako aterpetxeko egunerokotasuneko abenturez nahiz Xoxoteko aterpetxea izan zuen garaiaz mintzatu da Azpeitiko bizilaguna.

Testua: **Elena Margúello**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **utzitakoak**.

Beni Odriozolak (Azkoitia, 1968) Lintzako aterpetxearen (Huesca, Espainia) kudeaketaren ardura hartu zuenetik 26 urte pasatu dira. 1992. eta 1997. urteen artean Azpeitiko Etxe Zuri tabernan aritu zen lanean, eta denbora librean izaten zuenean Pirinioetara bidaiatzen zuen, "batik bat Lintzara". Garai hartako Lintzako aterpezainak ardura hori utziko zuela aipatu zion Odriozolari, eta horrela hartu zuen hark Lintzako aterpetxearen kudeaketaren ardura: "Betidanik izan da nire ametsa Pirinioetan bizitzea, baina ez nuen pentsatzen halakorik lortuko nuenik".

Lintzan lanean hasi osteko lehenengo sei-zazpi urteetan, hamazazpi lan egun eta lau jai egun izaten zituen segidan Azpeitiko bizilagunak: "Nire bizitza han zegoela sentitzen nuen, eta herrira itzultzean, batzuetan, arraro sentitzen nintzen". Orain, berriz, zortzi lan egun jarraian eginda, hamalau jai egunek osatzen dute aterpezainaren lan jarduna. Dena den, urtean zehar eta jendearen arabera lan banaketa "asko aldatzen" zaiela azaldu du Odriozolak.

Basurdeak, hartzak, oreinak, marmotak, sarriok edota ugatzak dira Lintzako aterpetxearen inguruko bizilagunak. "Munduko lanik onena topatu dut Lintzan", adierazi du Odriozolak. Pertsona "asko eta asko" ezagutu ditu aterpetxeko lanari esker, eta Lintzan "herri batean pertsonekin eta naturarekin lortzen ez den lotura berezia" sortzen dela sentitzen du. Konexio horiek

sortzen dira, adibidez, gauetan tximiniaren alboan esertzen direnean, eta kanpora atera eta izarrik ikusten egoten direnean: "26 urtean ez naiz aspertu jendeari sortzen zaion zirrara horrekin".

Haren arabera, "luxu bat" da esnatu eta Pirinioetan zaudela sentitzea. Horixe da, Odriozolaren arabera, aterpezain izatearen alderik onena. Askok bidaiatutakoa da Azpeitiko bizilaguna, baina hala ere, Pirinioak "altxorra" direla uste du: "Erretiroa hartu arte Pirinioetan egotea espero dut". Badu, ordea, pena handi bat Odriozolak. Lintzako aterpetxearen ardura hartu zuen Miguel hil egin zen, eta gogorra egiten zaio egunerokotasuna harekin ezin partekatzea.

Aterpetxe batean lan egiteko mendia "maitatu" beharra dagoela uste du, baina guztiaren gainetik, ostalaria eta enpatia duen pertsona izan beharra dagoela azaldu du. Izan ere, aterpezainek badituzte ardurak: "Garai batean, mendian norbait galdu zela abisatzen zigutenean, geu joaten ginen bila; orain, baina, alde horretatik gauzak asko aldatu dira. Gaur egun, basozainen lana egiten dugu; suhiltzaileei deitzen diegu eta ezbeharra izan dutenei laguntza humanitarioa ematen diegu". Izan ere, asko dira gertatu diren eta oraindik ere gertatzen diren ezbeharrak: hildakoak, mendira prestatu gabe joaten den jendeak izaten dituen istripuak, elur beltza edota mendiaren hego aurpegiak zer diren ez dakitenak... "Askotan arduragabekeriagatik gertatzen dira ezbeharrak", aitortu du Odriozolak.





Hasiera batean, Lintzako aterpetxean jende gehien neguan ibiltzen baldin bazen ere, gaur egun uda garaian are jende gehiago joaten da Lintzara. Aterpezainaren iritziz, "abentura bila" joaten da jendea Pirinioetara, eta aitortzen du aterpetxeak Camille ibilbideari edota Enaren Ibilbideari "esker" ere bizi direla. Jende gutxien ibiltzen den garaia, berriz, azaroa izan ohi da, aterpezainaren arabera: "Mendia garai horretan arriskutsu egoten da, lehenengo elurrak ondo asentatu gabe egon ohi direlako eta egunak motzagoak izaten direlako".

Eta horrenbeste mendizalaren eta jenderen bueltan, anekdotak biltzeko tartea ere izan ohi du Odriozolak. Hala kontatu ditu batzuk: "Behin, takoidun zapatekin eta ondo jantzita etorri zen lagun talde bat Hiru Erregeen Mahaia mendira teleferikoan igotzeko asmotan. Han halakorik ez zegoela komentatu nienean pixka bat haserretu egin zitzaizkidan. Beste behin, berriz, furgonetarekin Petrechemako lepoan lo egin nahi zuen gizonezko bat etorri zen gurera. Esan nion hara joateko errepiderik ez zegoela, baina baietz esaten zidan. Mapa erakusteko eskatu nionean Camille ibilbidearen marra gorria

seinalatu zidan: hura errepide nazionala zelakoan zegoen".

Pirinioetatik Izarraitzera

Aitarekin ondu zuen mendizaletasuna Odriozolak, eta ezagutu zituen lehenengo mendiak Izarraitz mendilerrokoak izan zituen. 2018an, Xoxoteko aterpetxea lehiaketara atera zenean, Lintzako eta Xoxoteko aterpetxeak, biak, zuzentzea "suertatu" zitzaion, eta horrelaxe egin zuen: bi aterpetxeetako lanak bateratu zituen garai batez azkoitiarrak. "Oso berezia eta oso polita izan zen Xoxoteko aterpetxean lan egitea", aitortu du hark.

Beni Odriozola

- **Adina:** 55 urte.
- **Ikasketak:** Dekoratzaila.
- **Lanbidea:** Aterpezaina.
- **Aterpezaina ez banintz...** bidaia gidaria izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Azpeitira etorri eta lagunekin egotea.



Batzuetan, ordea, Xoxoteko aterpezaintza Lintzakoa baino zailagoa iruditzen zitzaiola azaldu du: "Lintzan jendeak aurrez deitu egiten du, eta gutxi gorabehera jakiten dugu zenbat jende ibiliko den. Xoxoten, ordea, ez". Hala ere, "oso esperientzia polita" izan zela esan du: "Horrenbeste urte kanpoan egin eta gero, kaletik at jende askorekin berriro egoteko eta mendiko harremana sustatzeko aukera izan nuen".

Pandemia garaian, Xoxoteko aterpetxeko lankidea zuena hil zenean, aterpetxearen ardura uztea erabaki zuen: "Orain dela bi urte utzi nuen Xoxoteko aterpetxea, eta ordutik behin bakarrik itzuli naiz hara. Oso oroitzapen onak ditut, eta kostatu egiten zait hara joatea". Hala ere, Izarraitzek "mendiarekiko maitasuna" eman diola sentitzen du: "Dena hasi zen tokia da Izarraitz". ■■■

AURREMATRIKULA

MAIATZAREN

8tik 26ra

IKASTETXEA PUBLIKO
DEUTXUA

UNI
EIBAR
ERMUA

IKASTETXEA PUBLIKO
DEUTXUA

F

M

A

I

EGOKITZAPEN FISIKOA

GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA

NAZIOARTEKO MERKATARITZA

GARRAIO ETA LOGISTIKA

MERKATARITZA JARDUERAK

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

→ Administrazioa eta Finantza eskaintza partziala ematen da.

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA

WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA

SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA

ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA

INFORMAZIOAREN

TEKNOLOGIEN

INGURUNEETAN

www.uni.eus

Oteola Harbideak, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | ikasleentza@uni.eus | @unibara

Baiez Hamaniru!

Horra Mariipurtzil eta Pellozini, komuna garbitzeko prest. Berdin-berdinak ematen dute gure bi lagunak, ezta? Baina badiro aldeak bien artean. Ea aurkitzen dituzun.



Ordena itzazu komuneko paperak
handienetik txikienera. Handienari 1
zenbakia eman eta txikienera 8.

Bete itzazu hutsuneak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Denboraren dominoan



Bakıtzarı bəreə

Gezurra dirudi, zenbat tresna erabiltzen diren etxean garbiketarako. Hona hemen batzuk. Lotu gauza bakoitzari bere izena.





Itzala

AI, gaixoa Pelloziri. Usapoi batek kaka egin dio leihoan eta garbitu beharra dauka. Piura harrigarria du, ezta? Baina lasai, ez da leihotik eroriko, eta eroriko balitz ere, ez litzateke larria izango, lurretik metro erdi eskasera baitago. Bero, bero, utz ditzagun azalpenak eta harira: zein da bere itzal zuzena? Bide batez, irudia MARGOTU.

Sudokua

Bete itzazu sudoku honetako hutsuneak, LEIHOA hitza osatzen duten hizkiak (L, E, I, H, O eta A) dagokien tokian jarritz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta arua bakoitzeko.



Mezu Gordea



Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta gure lagunek zer dioten asmatuko duzu.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Dena aldatzen da



MIREN SEGUROLA

Dena aldatzen dela abesten du Ines Osinagak. Eskuz esku aldatzen duela distira diamanteak, edota txoriak habia, eta arnasa amoranteak. Ibiltariak ere bidea aldatu egiten duela maiz. Dena aldatzen da, bai, eta Azpeitia ere aldatzen ari da. Bazter honetan duela zenbait aste aipatu nuen moduan, biztanleriaren datuak ikusita nabarmena da Azpeitian ere aldatu egin dela bai herritarren, baita euskaldunen profila ere, udalerri euskaldun gehienetan bezala. Eskolak ezagutza bermatu du, baina gero eta herritar gehiago ditugu jatorriz euskaldunak ez direnak, eta horrela ulertzen da etxeko erabilerak azken 30 urtean izan duen bilakaera: %76tik %62ra, hamalau puntu behera eginez.

Izan ere, hizkuntzaren erabilerari zuzenean eragiten diote demografiak eta migrazio-mugimenduek. Horregatik, horiek aztertu ditu Uemak herriz herri, estatistika ofizialak iturri hartuta, udalerri euskaldunen

bilakaera soziolinguistikoa ikusteko. Azpeitiari dagokionez, hilabete honetan ezagutarazi ditu datuak, eta argi ikusten da azken urteotan herritik zein Euskal Herritik kanpo jaiotakoen kopuruak nola egin duen gora. 2001ean Azpeitian bertan jaiotakoak %60 ziren, Hego Euskal Herriko beste herrietan jaiotakoak %30, eta atzerritarrak %8,6. 2021ean, berriz, Azpeitian jaiotakoak %57 ziren, Hego Euskal Herriko beste herrietan jaiotakoak %27 eta atzerritarrak %15.

Ez dago esan beharrik gure herriak zenbateraino aberasten dituzten beste herrietatik etorritako herritar berriek, beraien kulturarekin

**HIZKUNTZAREN
ERABILERARI ZUZENEAN
ERAGITEN DIOTE
DEMOGRAFIAK ETA
MIGRAZIO
MUGIMENDUEK**

eta hizkuntzekin, besteak beste. Gure aldetik, herritar horiei dagokien harrera egiteko, ez daukagu euskara erakustea eta irakastea baino zubi hoberik. Azpeitia udalerri euskalduna den heinean, euskararen garrantzia, historia, egoera eta bilakaera ezagutaraziz, euskaratik eta euskaraz ongi etorri ederrena egin diezaiekegu.

Datuak eskuan, hamar herritarretatik lau Azpeititik kanpo jaiotakoak baldin badira, eta lau horietatik bat baino gehiago Euskal Herritik kanpo jaiotakoa baldin bada, ezinbestean errealitate horretara egokitutako hizkuntza politika beharko dugu hurrengo urteotan, arlo guztietan. Herritar horiek euskarara erakartzeko eta gonbidatzeko ekimenekin, euskaldunduta azpeitiar petoak bihurtzen direla erakutsiz eta herria askoz gehiago ulertuko eta gozatuko dutela ikusaraziz. Dena aldatzen denez, guk ere aldatu behar dugu, ezinbestean, errealitate berrira egokitzeko. ■

Ekitaldia

Maite duzun Azpeitia



Maiazaren 19an,
ostirala,
19:00etan,
Plazan



**EGINGO
DUGU.**

ehbildu

Panderoa eta trikitia baino, futbola nahiago

IÑIGO ARREGI LAGUN ONAK FUTBOL TALDEKO PRESIDENTEA

Loiolako trikitiaren sehasketako batean jaioa izanagatik, baloiak panderoak baino gehiago erakarri du gaztetatik Iñigo Arregi. Lagun Onak futbol taldeko presidentea da gaur egun, baina mekanizatu tailer bateko lanaldiarekin uztartzen du kargu hori. Kirolzaleaz haratago, irakurzalea ere bada.

Testua eta argazkiak: **Julene Frantzesena.**

Iturbidetarra eta loiolatarra. Ezaugarri horiek entzunda, hirugarren bat datorkio askori burura: festazalea. Baina Loiola auzoko Iturbide baserrikoa da Iñigo Arregi (Azpeitia, 1967), eta berak dioenez, loiolatarra izateak eta festazalea izateak ez dute zer ikusirik. "Gure etxean golfo samarrak izan dira, baina ni ez dut uste hala naizenik. Dena den, iturbidetarrek badute festarako zera hori".

Trikitiaren sehasketako batean jaioa da Arregi. Panderoa jotzeko sena belaunaldiz belaunaldi transmititu den etxe batekoa. Imanol Arregi *Iturbide* pandero jotzailearean semea. Baina bukatu zen panderoaren katebegia haienean ere. Izan ere, Iturbideren seme-alabek ez dute ez panderoa, ez soinua jotzen ikasi. Arregik azaldu duenez, berak ezta trikitia dantzatzen ere. "Trikitia entzutea gustatzen zait, baina ez nuke asmatuko panderoa jotzen. Hartu izan dut eskuetan, baina... Hiru anai-arreba gara eta inork ez dugu jo panderorik sekula. Aitak, osabek... izan zuten trikitirako joera, baina uste dut belaunaldi hartan bukatu zela Iturbideko trikitilarien kontua; izan ere, gure ondorengoek ere ez dute ikasi".

Saiatu, saiatu zen, ordea, Arregi, alaba soinua ikastera bultzatzen. "Tartean behin hala esaten dit oraindik alabak: 'Zuk nahi zenuelako aritu nintzen ni soinua ikasten' [barrez]. Eta egia esan, hala da. Alabak soinua ikas zezan nahi izan nuen, neuk ez nuelako egin".

Etxean musikariak izan dituzten arren, pandero hots handirik ez dela izaten Iturbiden azaldu du Arregik. Aita panderoa jotzen etxean baino kanpoan gehiago aritzen zela adierazi du. "Afariren bat zenean edo etxera soinu jotzaileraren bat etortzen zenean bai, baina gainerakoan, batere ez genuen entzuten panderoa. Aita oso diskretoia izan da horretan. Dena den, etxean panderorik ez zen jotzen, ziurrenik soinu jotzailerik ez zegoelako senideen artean. Ze bestelako tontokeriak eta txorakeriak bai, dezente izaten ziren gurean".

Txikitako oroitzapenak ere ekarri ditu gogora, Iturbidetik Ikastolara oinez joaten ziren garaikoak aurrena. "Ikastola Loiolan zegoen sasoi hartan, eta gaitzerdi, oinez ibiltzen baikinena gora eta behera. Baina lana ere egiten genuen baserrian. Izan ere, aitak uzten zigun parranda egiten, baina gero goizetan ez zigun barkatzen. Baserrian





Loiolako festetan mendi duatloia antolatzen zuteneko irudi bat, Arregi helmugan besoa altxatuta irabazlea iritsi dela adierazten.

laguntzen genion pixka bat, nahiz eta ez ginen baserritik bizi".

Atezain izandakoa

Bazen trikitiak baino gehiago erakartzen zuen zerbait sasoi hartarako: futbola. Baloia izan du gustuko Arregik txikitatik. Gaztetan hasi zen Lagun Onak futbol taldean jokatzeko, atezain postuan, eta sasoi hartako oroitzapen "oso onak" ditu. "Jubenil garaian denboraldi historikoa egin genuen, adibidez. Dena irabazi genuen, partida onak jokatu genituen, talde onen aurka aritu ginen... Pentsa, Frantziara joan ginen txapelketa bat jokatzera. Esperientzia polita izan zen". Urte batzuk igarota eta azken denboraldia Zumaiakon eginda, "garaiz" laga zuen futbola. Halabeharrez: "Lanean hasi nintzen, eta askotan kanpora joan behar izaten nuen. Futbola ez zen lanarekin bateragarria, eta utzi egin behar izan nuen".

Hondartzako futbolearen ere aritu zen hainbatetan, Zarauzko Plaieroetan, zehazki, Tximarruko taldearekin. "Ederki pasatzen genuen, baina sufritu ere, sufritzen genuen pixka bat; izan ere, igandeetan izaten ziren partidak eta jendea zapatueta kalean ibiltzen zen... [barrez]". Zarautzen txapeldun izan izan ziren. "Zarauzko txapelketa irabazita Laredoko [Espainia] txapelketara ere joan ginen, eta hura ere irabazi egin genuen". Txapelketa haren ondorena du, batez ere gogoan Tximarruakeko atezain izan zenak. "Asteburu ederra pasatu genuen, eta juerga

polita egin ere bai. Oroitzapen ederrak dauzkat", azaldu du.

Futbolearen aritzeari utzi zionetik urteak pasatu badira ere, ez du eten kirol horrekin duen harremana. 2017ko martxotik, Lagun Onak futbol taldeko presidentea da Arregi. Gustura aritzen da egiteko horretan, nahiz eta aurtengo denboraldian sufritzea ere egokitu zaien zuzendaritza taldeari nahiz zaleei. Hain zuzen ere, Espainiako Hirugarren Mailako taldeak azken partidako azken minutura arte borrokatu behar izan du mailari eusteko, baina lortu du.

Hala ere, klubaren gidaritzan "gustura" aritzen direla azaldu du. "Emaitzek sufrimendua sortzen dute, baina giro ona daukagu, jende asko aritzen da klubean, eta horrek poza ematen du".

Aurreko zuzendaritza taldeak erreleboa behar zuela eta, taldetxo bat animatu zen Lagun Onak gidaritzara. Dena den, lehenagotik ere klubean "laguntzen" aritzen zirela azaldu du Arregik. "Aldaketa eskatzen zuten lehengo zuzendaritzakoek, eta egia esan, halako boluntario lanetarako jendea bilatzea ez da erraza izaten. Boluntario lana ez ezik, ardura eskatzen duen lana ere bada, gainera. Ez da laguntzea soilik, jende asko aritzen da klubean, haur eta gazte asko, eta ardura eskatzen du horrek".

Irakurri bai, baina paperean

Lagun Onakeko presidente lanak mekanizazio jardunarekin uztartzen ditu Arregik; urteak



Arregi eta Mikel Izurieta, Lagun Onakeko presidente aldaketa gauzatu zuten batzarrean.

"GOSALTZEN ARI NAIZENEAN-ETA ZERBAIT IRAKURTZEN ARITU BEHAR IZATEN DUT; PAPEREAN, GAINERA"

"EZ NAIZ OSO MUSIKAZALEA IZAN SEKULA, ENTZUTEN DUT IRRATIAN ETA, BAINA LISTO"

"TRIKITIA ENTZUTEA GUSTATZEN ZAIT, BAINA EZ NUKE ASMATUKO PANDEROA JOTZEN"

daramatza mekanizatu tailer batean lan egiten. Bi egiteko horiek alde batera utzita geratzen zaion denboran, kirolaz gozatzea eta irakurtzea gustatzen zaio. "Kirolzalea" dela azaldu du, eta kirol "denak edo gehienak" gustatzen zaizkiola adierazi. "Saskibaloia gustatzen zait, batez ere, AEBetako. Pilota partidak eta herri kirol saioak ere ikusten nituen emaztearen aita zenarekin...".

Lehen paseatzea ere gustatzen zitzaiola azaldu du, azken boladan alferrean dabilela aitortu duen arren. "Orain ere gustatzen zait, baina ez naiz askorik ibiltzen. Sasoi batean oso gustura joaten nintzen mendira, obligazioa hartua nuen, baina laga nion, eta halakoetan kostatu egiten da berriro hastera. Komeni da, ordea, ibiltzea; izan ere, zabiltzanean gustura sentitzen zara, eta gelditutakoan, baldar samar edo". Haren aburuz, jarraikortasuna izateko "diziplina" behar da. "Badut oso diziplinatua den lagun bat, egunero-egunero paseora joaten dena. Zaila egiten zait niri hori, pereza sentitzen dut. Gainera, erreleboan egiten dut lan, eta horrek zaildu egiten du jarraikorra izatea; izan ere, gorputza desberdin izaten dut ordutegiaren arabera".

Bada, baina, egunero eta hutsik egin gabe egiten duen gauza bat: irakurtzea. "Asko gustatzen zait", azaldu du. "Gosaltzen ari naizenean edo etxean nagoenean zerba it irakurri behar izaten dut. Paperean irakurri behar izaten dut, gainera. Egunkaria, liburuak, aldizkariak... berdin dit zer irakurri". Musika ere entzuten du, trikitia gustatzen zaio, baina estilo jakinik ez duela atsegin adierazi du. "Ez naiz oso musikazalea izan sekula, entzuten dut irratian eta, baina listo".

Bidaiazalea ere ez da Arregi, nahiz eta bazter batzuk ezagutzeko parada izan duen. Hark esan duenez, baina, arrazoi bategatik edo besteagatik, ez du bidaiatzeko modurik izan. "Venezuelara joan ginen, adibidez, emaztea eta biok, eta paraje ederrak ezagutu genituen. Baina beti gauza bera esaten dut: Euskal Herrian izugarritzko lekuak ditugu. Beti kanpora begira aritzen gara, baina hemen leku zoragarriak dauzkagu eta asko ez ditugu ezagutzen". Alaba bisitatzera Sevillara ere joan zen, eta "polita" iruditu zitzaion, baina etxean bezala inon ez, Arregiren ustez. "Hala esan nion alabari Sevillara joan ginenean: 'Alde ederreko lekuan bizi gara!'. Eta halaxe dela pentsatzen dut". ■

SOKA LUZEAN



AMAIA ALBERDI

Egunaren argia eta itzala

Bizia itzuli balitz bezala da. Kolore, doinu, usain... oparo, zentzumen guztiak esnatzeko garai egokia da udaberria. Egunaren argi orduen luzapena ere urtaro honen bereizgarria da.

Uda bitarte, neguaren iluntasuna atzean utzi eta apurka-apurka, egunak gauari ostuko dizkio orduak. Egunaren iraupenaren aldaketa prozesu ziklikoa da, eta nagusiki, Lur planetak dituen bi mugimendurekin zuzenki lotua dago. Beste batzuen artean, Lurra errotazio eta translazio mugimenduak gauzatzen ditu. Lehenengoan, errotazioan, erloju orratzen aurkako noranzkoan, Lurra bere ardatzean biratzen da, eta bira oso bat egiteko, 24 ordu behar ditu. Mugimendu horren bira bakoitzean, eguzkiak Lur planetaren aurpegi bat argituko du, eta bestea, itzalpean geratuko da, eguna eta gaua bereiziz. Eguzkiaren inguruan egiten du Lur planetak bigarren mugimendua: translazioa. Azken kasu honetan ere, erloju orratzen aurkako noranzkoan mugitzen da Lurra, eta Eguzkiari bira bat emateko 365 egun behar ditu.

Errotazio eta translazio mugimenduak direla eta, eguna eta gaua eta urtaroak bereizten

dira Lur planetan. Latitudearen arabera, egunaren iraupena eta urtaroak ezberdinak dira.

Ez da kasualitatea egunaren iraupena luzeagoa den garaiaren esperoan egotea; izan ere, gizakia eguneko animalia da. Hau da, egunez aktibo dago, zaindu eta elikatu egiten da, eta ondoren, gauean, energia berreskuratzeko atsedean hartzen du, gainontzeko eguneko animaliak bezala. Gautarrak diren animalien kasuan, bizimodua alderantzizkoa da.

Gaur egun oso barneratuta daukagu –batzuk beste batzuk baino gehiago– eguneko animalien jarduna. Hala ere, *Nature Ecology & Evolution* aldizkariak 2017. urtean plazaratu zuenez, ugaztunen arbasoak gautarrak ziren, eta sakon ilunetan ezkutatzen ziren egunean zehar.

Eboluzioaren ondorioa da eguneko bizimodua hautatzea, baina ezagutzen diren ugaztunen gehiengoa gautarra da egun, beraz, esan daiteke, ohitura arraroak gu garela. 2018an argitaratu zenez, ugaztunen gautartzeko joera nabarmen –ia %70– handitu da azken urteetan gizakiaren jardura dela eta. Nonbait, gauaren zain daude, gu lokartu eta haiek lasai bizi daitezen. ■

BOTEPRONTOAN



IGNACIO ARAKISTAIN

Zurea da hitza

Honezkero iritsi zaizkizu, irakurle, promesa eta asmo onez eztitutako *panfletoak*. Ikusiko zenituen gure herriaren irudirik idilikoena bilduz osatutako kanpaina bideo azukretuak. Matraka elektoralistak eta diskurtso gozoak alde batera utzita, azken lau urteetan ordezkari politikoek eginikoa behatzeko, aztertze eta epaitzeko garaia ere bada hauteskunde girokoa. Nota jartzen baitiegu denei, bidea amaituta doazenei zein ekintza gosez datozenei. Nabarmentzekoak, azken agintaldiak izaniko zailtasunak; udalbatza berria lanean hasi eta gutxira topatu baitzen guztion bizitzak ziurgabetasunez bete zituen pandemiarekin. Hori guztia, ondoren herria komunikabideen azaletan eta orrietan jarriko zuten beste hainbat gai lehertuko zirela askotxorik jakin gabe. Izan da, bai, sestra eta zalaparta, ildo desberdinetik jo nahi izan dutenen arteko talka garratza.

Horixe du itsusitik politikak, lubakiak zeharkatzen saiatzea, soilik ausarten –ala traidoreen, nork daki– zeregina dela. Balio beza hauteskunde prozesu honek estrategiak alderatzeko, proposamenak mahai gainean jartzeko eta herri gisa gure etorkizunak zein kolore izan behar duen erabakitze. Azpeitiar estimatu hori, zurea da hitza. ■




TiEN21ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com



URRATEGI

INTERIORISMO

barne diseinua

PROIEKTUAK
OBRAK
BARNE DISEINUA

www.urrategiinteriorismo.com
Azpeitia Arretxe 9 Eibar Aragoeta 27